



Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea
Semana de Cine
Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy
Film Festival

DONOSTIAKO FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN 31. ASTEA

PALMARESA

Ikusleak

 *IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI*

Benny Loves You (2020). Karl Holt. Erresuma Batua

 *IKUSLEEN SARIA FILM LABUR ONENARI (1.000 €)*

Downward Facing Dogs (2019). Karsten de Vreugd. Herbehereak

 *IKUSLEEN SARIA ANIMAZIOZKO FILM LABUR ONENARI (1.000 €)*

The Zillas Have a Picnic (2019) Christian Franz Schmidt. Alemania

 *IKUSLEEN SARIA ESPAINIAKO FILM LABUR ONENARI (1.000 €)*

Dar-dar (2020). Paul Urkijo Alijo

Epaimahaia

 *EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI (1.000 €)*

Migrations (2020). Jerome Peters. Belgika

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Asteko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketaren Epaimahaiak, **Caye Casas**, **Desirée de Fez** eta **Valeria Vegas** kide dituenak, aho batez erabaki du Film Labur Onenarentzako Epaimahaiaren Saria **Migrations** ematea, bere originaltasunagatik, genero desberdinak elkartzeko erakusten duen trebetasunagatik (zientzia fikzioa, komedia kostunbrista eta beldurra), bere umore sen bereziagatik eta mezu kritiko bat igortzeko duen erraztasunagatik. Aktore multzo bikainaren antzezpena nabarmendu nahi dugu bereziki.

Aipamena **Nightingaleri** (Jasper de Bruin; Herbehereak, 2020). Banpirismoaren gaiari heltzen dion modu originalagatik, bere edertasun arrotzagatik, oso irudi latzak erakutsi arren, eta beldurra eta melodrama elkartzeko erakusten duen trebetasunagatik.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

🕸 “ZILARREZKO MÉLIÈS” SARIA EUROPAKO FILM LABUR ONENARI

A Stranger from the Past (2020). Jan Verdijk. Herbehereak

Bost minutu laburretan istorio konplexu bat kontatzeko zuzendariak erakutsitako trebetasunagatik, eta inpaktuzko irudiaz baliatuta, eta bai giro beldurgarriaren bai munstroaren diseinu hain erakargarriagatik.

Gazte Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari

The Familiars (2020). Millicent Malcolm. Australia

Syfy Saria Espainiako Film Labur Onenari (3.000 €)

Abracitos (2020). Tony Morales

“Genero honetako alderdi garrantzitsuenak biltzen dituela uste dugu, suspensea mantentzen du eta atzean fantasiako istorio bat du gainera. Film labur honek benetan ikusitakoa baino istorio luzeagoa bat eratzen du ikuslearen irudimenean. Minuturo airean mantentzen zaituen giro ilun batean, istorio hau, beldurrari ihes egiteko izaren azpian ezkutatuta dauden bi ahizpena, SYFYren apustua da Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asterako”.

Blogos de Oro Saria Film Luze Onenari

Come True (2020). Anthony Scott Burns. Kanada

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Asteko **Blogos de Oro** kritikaren epaimahaiak, **Jon Paul Arroyo** (BangBang Zinema), **Mikel Peña** (Ravenheart), **Manuel Aguilar** (CineDePatio), **Jon Ruiz** (ATxiflar) eta **Marta Hernández**ek (epaimahaikide gonbidatua) kide dituenak, saria **Come True** filmari ematea erabaki du, ametsen alde ilunera bidaia kezka-garri bat egiteko bere ezohiko proposamenagatik, bere amesgaiztozko giroagatik, eta bere apustu artistiko estetikoagatik.

Ikusleen Saria Fanzine Onenari

Babeslea: **FNAC Donostia**

Brainstorming

SARIAK

Laura Gómez Garrido (LOXID)